Lan-eskaintzen erregistroa 2021eko azaroan

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2021eko azaroan Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 1.694 izan da, urrian baino 166 gehiago eta joan den urteko azaroan baino 687 gehiago. Egunean bataz bestez 80 eskaintza erregistratu dira, aurreko hilean baino 4 eskaintza gehiago egunean.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2021eko azaroan 206 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 625 Gipuzkoan eta 863 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 50,9 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, % 36,9 Gipuzkoakoetan eta % 12,2 Arabakoetan.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 1,4 murriztu dira eskaintzak (3 eskaintza gutxiago). Gipuzkoan eta Bizkaian, aldiz hazi egin dira eskaintzak; Gipuzkoan 102 eskaintza gehiago egon dira (% 19,5eko hazkundea) eta Bizkaian 67 gehiago (%8,4).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 46 eskaintza gehiago erregistratu dira, % 28,8ko hazkundea, Gipuzkoan % 114,8 hazi dira (334 eskaintza gehiago), eta azkenik, Bizkaian % 55,2 hazi dira (307 eskaintza gehiago).

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. % 25,9a zientzia teknikarien profilerako erregistratu dira (380 eskaintza); eta, % 17,8a laguntza teknikarien profilerako (301 eskaintza). Hirugarren sektoreko, industriako eta kualifikatu gabeko profileko lan eskaintzek, ere, pisu nabarmena dute; 263, 250 eta 231 eskaintza erregistratu dira, hurrenez-hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak, lehen sektorekoak eta zuzendariak izan dira, 20 eta 18 eskaintza hurrenez hurren.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, eskaintza mota gehienak hazi dira. Gehien hazi den profila, balore absolutuetan, industriakoena izan da (44 eskaintza gehiago, % 21,4ko hazkundea). Balore erlatiboetan gehien hazi den profila zuzendariena izan da (% 38,5eko hazkundea, 5 eskaintza gehiago). Beste muturrean aurkitzen da zientzia teknikarien eta laguntzako teknikarien profila, hauek izan dira murriztu diren eskaintzak, 15 eskaintza gutxiago (% 3,8 eta %4,8ko murrizketa, hurrenez hurren).

Urte arteko saldoari erreparatuz, eskaintza guztiak hazi dira lehen sektorekoak izan ezik; hauek 5 gutxiago erregistratu dira (%20 gutxiago). Balore absolutuetan, zerbitzuetako profileko eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (175 eskaintza gehiago, % 198,9ko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, zuzendaritza profilekoak izan dira (% 350eko hazkundea, 14 eskaintza gehiago).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 15,3k kontratu mugagabea eskaini dute; % 83,4k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 1,3, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 260 izan dira, aurreko hilabetean baino 43 eskaintza gehiago. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 116 eskaintza gehiago erregistratu dira: 1.142 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan hazkundea % 8,9koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2021eko azaroan 22 izan dira, aurreko hilean baino 7 gehiago.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 186 gehiago izan dira (% 251,4ko hazkundea), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 52,2 hazi dira; 484 eskaintza gehiago, eta, merkataritzako kontratuak, azkenik, 17 gehiago erregistratu dira.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2021eko azaroan erregistratutako lan-eskaintzen 3 laurden baino gehiago (1.312 eskaintza, % 77,4) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 11,9k (201 eskaintza) 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dute. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek % 2,4ko pisua dute (40 eskaintza) eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenen pisua % 0,8koa da (eskaintza 13).



Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, gehien hazi diren eskaintzak, balore absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko denbora eskatzen duten eskaintzak izan dira (99 eskaintza gehiago, % 8,2ko hazkundea); balio erlatiboetan, berriz, 6 eta 12 hilabeteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira hazkunde haundiena izan dutenak (65 eskaintza gehiago, % 47,8ko hazkundea). Bestetik, murriztu diren eskaintza bakarrak 1 eta 3 urte arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira (15 eskaintza gutxiago, %10,5eko murrizketa).

Lan-eskaintzen erregistroa 2021eko azaroan

Urte arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza mota guztiak hazi dira. Gehien hazi direnak, balore absolutuetan, 6 hilabete arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira (553 eskaintza gehiago, % 72,9ko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, 3 eta 5 urte arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (%90,5eko hazkundea, 19 eskaintza gehiago).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 7 hileko esperientzia eskatzen dute, aurreko hilean bezain beste.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin jarraitu baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 12,1ek zehazten du datu hori (1.694 eskaintzetatik 205). 205 eskaintza horietatik, 181 lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 24ak, lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 45 gutxiago izan dira urriarekin alderatuz, hau da, % 19,9 murriztu dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak, berriz, 7 gutxiago izan dira; murrizketa erlatiboa % 22,6koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 68 gutxiago izan dira (% 27,3ko murrizketa), eta lanaldi partzialeko kasuan, 2 gutxiago (% 7,7ko murrizketa).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 49 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 36 eskaintza gehiago eta aurreko urtean baino 41 gehiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 77,2k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.694 eskaintzetatik 386k soilik zehaztu dute.



386 eskaintza horietatik, 155 unibertsitateko prestakuntza maila eskatu dute; ikasketa maila hau duten eskaintzak izan dira ugarienak. Ondoren, LHko ikasketa mailak eskatzen dituztenak daude, 117 eskaintza erregistratu dira. Azkenik, oinarrizko eta batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude (79 eta 35 eskaintza, hurrenez hurren).

Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, hazi diren eskaintza mota bakarrak batxilergoko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (11 eskaintza gehiago,

% 45,8ko hazkundea). Bestetik, gehien murriztu direnak, bai balore absolutu zein erlatiboetan, LHko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (32 eskaintza gutxiago, %21,5eko beherakada).

2020ko azaroarekin alderatuz, eskaintza mota guztiak hazi dira. Gehien hazi direnak, bai balore absolutu zein erlatiboetan, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (63 eskaintza gehiago, % 68,5eko hazkundea).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen dena Administrazio Publikoa izan da; honen pisua eskaintza guztien % 23,1ekoa izan da (392 eskaintza). Nabarmentzeko beste jarduera batzuk manufaktura industria, merkataritza eta osasungintzako jarduerak izan dira, eskaintzen % 10,4, % 10,1 eta % 9,5eko pisuarekin (176, 171 eta 161 lan-eskaintza, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz, gehien hazi direnak, balio absolutuetan, osasungintzako eskaintzak izan dira (68 eskaintza gehiago, % 73,1eko hazkundea). Beste muturrean aurkitzen dira informazio eta komunikazioko eskaintzak, gehien murriztu direnak izan baitira bai balore absolutu zein erlatiboetan (38 eskaintza gutxiago, % 67,9ko murrizketa).

Urte arteko saldoari erreparatuz, bilakaera hoberena izan duten eskaintzak, balore absolutuetan, merkataritzakoak izan dira (113 eskaintza gehiago, % 194,8ko hazkundea); balore erlatiboetan, ostalaritzakoak izan dira gehien hazi direnak (%572,7ko hazkundea, 63 eskaintza gehiago). Bestaldetik, gehien murriztu diren eskaintzak administrazio publikoko izan (% 3,7ko murrizketa, 15 gutxiago).


Eskaintzaren jarduera
Etxeak langile enplegatzaile gisa
Beste zerbitzuak
Artistikoak, jolaserakoak eta entretenimenduzkoak
Osasun jarduerak eta gizarte-zerbitzuak
Hezkuntza
Administrazio publikoa
Jarduera administratiboak
Profesionalak, zientifiko eta teknikoak
Higiezinen arloko jarduerak
Finantza eta aseguru jarduerak
Informazioa eta komunikazioa
Ostalaritza
Garraio eta biltegiratzea
Handizkako eta txikizkako merkataritza; konponketa
Eraikuntza
Ur-horniketa, handakinen kudeaketa
Argindar, gas, lurrun horniketa
Manufaktura industriak
Erauzketa industriak
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza
0,00%
5,00%
10,00%
15,00%
20,00%
25,00%